Mugaldekoak

EDU ZELAIETA

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2004 Edu Zelaieta
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2004ko apirila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

MUGALDEAN

burutazio oro dugu
kontrabando lana

ADUANA ZAHARRA

Bidasoako paraje zoragarrian
lehengo mugaren marra gaindiezina zen tokian
orain aduana zaharra bakarrik gelditu da:
hutsik barrenetik, pintadaz beteta kanpotik.

Zenbat lagunek ez zuten hil aitzineko paradisua
ikusiko
ehun metro eskasetara?
Zenbat jirabira mugaren marra gaindiezina
deuseztatzeko?

Karabineroen baimen erosiak, joan-etorri
klandestinoak
muga inguruko uretan barrena.

Gaur egunean ere ba omen da muga
arratseko ordu ilunenetan gurutzatzen duenik,
bai eta Gerra ondoko denbora latz haietan
estraperlo gorrian harrapatuta gelditu denik ere.

Bidasoako turismo gida zoragarrian
lehengo mugaren marra gaindiezina zen tokian
orain aduana zaharra bakarrik gelditu da:
hutsik barrenetik, pintadaz beteta kanpotik.

ETORRI HUNAT

«Etorri hunat»
dioen ahots ezti batek iratzarri nau.
Ene begien aitzinean ikuskizun paregabea:
urtubiarrak eta altzatetarrak bat eginik
Logroñoko fraideen eta
Bordeleko Pierre de Lancreren kontra;
sorginek, lamiek eta agoteek elkar harturik
su eman diote Urtubiko Gazteluari.
Akelarreak eta paganismoa hedatu dira bazter
guzietara.

Mugaldekoen legea ezarri da oroz gainetik.
Bazterreko ahotsak gailendu dira
Bidasoaren bi alderdietan.

Eta sinesten ez badun,
«Etorri hunat».

MUGAKO JENDEA

Los atravesados live here

Mugako jendeak bi alderdietako herriak eta parajeak
ederki ezagutzen ditu. Badaki
eremu bakoitzean bertze aldean arrotzak diren legeak
eta usadioak ohikoak direla bertan.

Mundu guziari arrotza zaion mugaren idurizko marra
mugako jendearen gogoan bakarrik aurkitzen ahal da.

Mugako jendeak dena behatzen du egonarriz,
ez du inolako presarik
ez agerian utziko duen deus egin beharrik.
Ongi aski daki ikusten duenaren arabera
jokatu beharra dela, eta noizbait
bertze mugakiderik ikusiko balu
biek ez ikusiarena eginen lukete, euren arteko

hitzarmenak isilpean segi dezan. Izan ere,
mugako jendea ezagutzen duen jendaki bakarra
mugako jendea bera da.

Mugako jendea betiko erbestean bizi da,
atzerrian, sartu-irtenak eginez.
Beren gogoan baizik ez den idurizko marra
ez da kartografoen mapetan ageri.

ZORTZIGARREN MUGARRIA

Osaba Joxe Mariri

Bertan kokatzen dira
kontrabandoaren gaineko istoriorik xelebreenak,
zortzigarren mugarrian.
Ondo-ondoan Leandroren Kantina zegoen
bidean mokadutxo bat egiteko-edo.

Zortzigarren (eta hamargarren eta hamabigarren...)
mugarrian barrena
herri oso baten itxaropenak iragazi dira
itaxur baten gisara:
zoriona
ttan
tta
ka
eta gauez
ailegatu da bertze aldera.

Hamaika pasadizo sorrarazi du idurizko marrak
zortzigarren mugarriaren inguruan.
Istorio harrigarriak,
egiazkoak nahiz gezurrezkoak nahasten dira.
Denak
kontatzeko eta entzuteko
balekoak baitira.

EHUN URTE

«Funtsean, aduana eta kontrabandoa
elkarren pareko dira.
Kontua da nor den azkarrena».

Hala erran omen zion
Julien Viaudek Lekotxandegi xelebreari
zinez merezi duten hiru gaiez mintzatu ondoan.

Ehun urte inguru geroago
berriz elkartu dira
idazleren baten paper galduen artean.
Eta haiek, aldiz,
zinez merezi duten hiru gaiez mintzatzen segitu
dute.
Ehun urte ez baitira alferrik pasatzen.

MUGALARIA

Mugalaria izan nahi nuke
lege arrotzei lasai muzin egiteko.

Lege arrotzei lasai muzin egin eta
bertako mugak hautsi

Bertako mugak hautsi eta
libreago bizi

Libreago bizi eta
harat-honatean ibili

Harat-honatean ibili eta
kontrabandoan zoriona pasa

Kontrabandoan zoriona pasa eta
mugalaria izan

Bertako mugei muzin egiteko
izan nahi nuke mugalaria

BERTAKO ISTORIOAK

Aduanak Pirinio inguruan ezarri zirenean
bizimodu oso bat sorrarazi zuten
konturatu gabe.
Eguneko txoria hontza bihurtu zen; txoria txori.

Gerora
belaunaldiz belaunaldi ailegatu zaie altxor
klandestinoa,
mugaldeko anitzek bertzerik ezagutu ez dutela:
mugari esker bilakatu baitira mugalari,
honaindian eta haraindian.
Mugari esker berena izan dute mugazainek,
onean eta txarrean.

Orain
bi aldeetako mugalariak elkartzen zituen marra
ezabatzera deliberatu dute.
Eta antzina bezala gelditu gara.
Bidasoa aldeko itsasoa erreka egin da berriz ere.

Iraganeko
mugalariak, kontrabandistak, estraperlistak dira egun
bentetako saltzaileak, fabriketako langileak edota
bertako turismoa sustatzen duten landetxeetako nagusiak.
Beren atseden orduan nahiz ogitartekoa jateko tenorean
mugaldeko istorioak kontatzen dituzten
nagusiak, langileak, saltzaileak.

BAIGORRITIK ERRATZURAT

Baigorritik Erratzurat, Aldudetik Elizondorat
joaten zen Baztango nekazari gaztea
isilpean, gordeka, bizkar-lan betean:
hogeita hamar kilo kobre soinean.

Baigorritik Erratzurat
Ibai Handirik ez, Itsasarterik ez.
Oinezko bide malkartsua baizik:
izerdia eta nerbioak bidaide-turik
negu gorrian nahiz udazken orbelduan.

«Mugarik ezean, kontrabandorik ez»
pentsatzen zuen nekazariak bere artean
etxera bidean, egunabarrean.

«Duty free ez zen guretzat existitzen»
pentsatzen du ozenki aitona zaharrak ferryan,
«migrazio-poliziarik ere ez;
jendarmeak eta karabinero gizajoak baizik».

Tijuana, Tanger, Tarifa
ez ziren
Baigorritik Erratzurat.

MUSTILAKO ERREKA

Mila erreka emaritsu daude
infernura eramaten dutenak.
Mila erreka, mila istorio.

Maizter bizi gara
maizterrak garelako,
Iñarburu izeneko baserri abandonatuan.

Beltzak ikusitakoak gara
Mustilako errekan beheiti.
Ez dira samurrak bertako istorioak,
erreka urik gabe gelditu zenekoa adibide.

Errekak, ura izan edo ez,
errekak izaten dira beti.
Mugaldean, bereziki.

Orain, inor ez da Mustilaz oroitzen
ezta bere seme-alabez ere.
Hauek ez baitira mugaldean jaio
urrutiko hiri arrotz batean baizik.

Bertze mintzo bat dute, bertze izate bat,
mustilatarrak izan arren.

Aise ahantzi dituzte
inork kontatu ez dizkien istorioak.
Arrunt aise.

URRATUAK

ALDAKETA ESTRATEGIKOA

mugak, energiaren gisara,
ez dira deuseztatu,
bilakatu baizik

Ez dugu mugazainik behar
ez Bidasoan ez Pirinioetan.
Jakin baitakigu gaur den egunean
ez dela preziso Bidasoa ibaia
Cravanen gisara gurutzatzea.
Iragan garai bateko Bidasoa aldeko garitak
kostaldeko gotorleku bihurtu dira:
gu errazago pasatzen garen bitartean
bertze batzuk deusen truke hiltzeko.
Dagoeneko ez gara mugalariak
gure aitzinekoak bezala.
Mugalariak bertze batzuk baitira orain.
Mugak ere bertze nonbait paratu dira.
Eta mugazainak lau urtetik behin hautatzen ditugu.

SALMO POLONIARRA

Zeinen amets iragazkorrak diren gizakien estatuak!
Zeinen geruza iragazkorrak diren gizakien estatuak!
Zenbat hodei eta txori hegaldatzen dira gainetik
zigorrik jaso gabe?
Zenbat harea ez dugu garraiatzen herri batetik
bertzera
bideko hautsarekin batean?
Zenbat xinaurri pasatzen dira aduaneroaren hanka-
artetik
egunero, minuturo kasik?
Zeinen geruza iragankorrak diren gizakien estatuak!
Zeinen amets iragankorrak diren gizakien estatuak!

Gizatasunak bakarrik daki atzerritarra izaten.
Gainerakoa:
oihan ñabarrak,
lurrean egindako sator-lanak
eta haizea.

BATZUETAN

Barreneko haurra goiti eta beheiti ibiltzen zaigula
iduritzen zait batzuetan.
Ilusioak eta ametsak esku-eskura ditugula,
nahi izanez gero, oroitarazteko.

Alde zaharreko karriketan barrena
ibiltzen naiz batzuetan
goiti eta beheiti
bazterrak nahasi gabe.

Ijitoen eliza ebanjelistaren paretik pasatuz gero
iduritzen zait,
gure arteko mugak urratzea erdietsiko dudala.
Meskita algeriarraren nahiz
marokoarraren aitzinetik pasatuz gero
gure arteko arazoak akituko direla istantean.

Karrika horretako lokutorio latinoan
sartzekotan egon naiz batzuetan
barreneko giroa ezagutzeko
dei faltsu baten aitzakian.

Batzuetan pentsatzen dut
zer egiten zuten lagun horiek honat etorri aitzinetik.
Nondik nora bildu ote den unibertso berri bat
karrika berean, alde zaharrean.

Gezurra iduri badu ere, karrika berean daude
eliza, meskitak, lokutorioa eta klausurako komentua
bata bertzearen ondoan
bazterrak nahasi gabe.

Batzuetan
polizia ibiltzen da
goiti eta beheiti
zaintza-lanak eginez.

Ez dakit noiz arte iraunen didan nire baitako
kuttunak.
Noiz arte ttikitako handitasunak.
Ilusioak eta ametsak esku-eskura ditugula,
nahi izanez gero, oroitarazteko.

Batzuetan pentsatzen dut
ez naizela lokutorioan sartzera ausartuko

ezta harategi afrikarrean ere.
Ez baitakit nola hartuko duten nire presentzia.

Karrika bururen buru gurutzatzen dut batzuetan.
Inon sartu gabe, inorekin mintzatu gabe,
idurikatuz hortik pasatzen naizen aldiro
gure baitako mugaren bat arrailtzen hasia dela.

TANGER IZENEKO LOKUTORIOAN

ongixko ezagutzen ditut
Tanger, Tetuan eta Larache
triangelura egokitzen diren (ene) mugak

Mintzoak, arrazak eta kulturak
pasaeran
nahasian
Tanger izeneko lokutorioan.

Afrikatik etorri beltzen
errepide bazterreko prostituzioa bezala
joera berria dela diote soziologia adituek.
Areagotuz doana.
Hire etxe inguruan ere bakarren bat izanen duk.
Bereziki, alde zaharrean bizi bahaiz.

Zenbat aldiz
bidaiatu (behar izan) dun
pateraz?

Zenbaitetan
mugak gainditu beharrak
egiten du gizakia gizaki.
Hemen nahiz
Tanger izeneko lokutorioan.

Zenbat aldiz
deitu (behar izan) dugu
lokutorio batetik?

Eta lokutorio batera?

Paterak lokutorioz gainditu beharrak
egiten du bertakoa etorkin.

BERRIZ ERE GORRINA

Berriz ere enamoratzeko esperantzan zabiltzala
eta bertze gizaseme batengatik
zerorren bizia ere hondoratuko zenukeela
adierazi didazularik...

Pikorrez betetako
bigarren nerabezaro
baten
atarian
irudikatu zaitut nik:

Berriz ere pikorrez beteta
eta arrunt nerabe.

LERRO BERDEA (I)

Esperantzaren kolorea omen da.
Esperantzetan dauden emakumeak
ilusioz gelditu dira haurdun.
Haurrak esperantzetan daude
itxaropenez beteta.

Neronek, gizaki antzua izanda ere,
haurdunaldi psikologikoak izaten ditut,
munduak ziri ederra sartzen didan aldiro.
Eta gero, puxika banintz bezala,
haize guzia joaten zait
barrenetik hutsik gelditu arte.

Berdea
esperantzaren kolorea omen da,
inongo mugalaririk ezagutzen ez duen
lerro mehe eta fina.
nahi gabe ere aise gurutzatzen dena.

LERRO BERDEA (II)

Behobiaren alde batean: greziarrak
Behobiaren bertze aldean: turkiarrak.
Denak behobiarrak dira.
Nahiz eta turkiarrentzat
bertze aldekoak greziarrak diren.
Nahiz eta greziarrentzat
bertze aldekoak turkiarrak diren.

Ezustean ireki dituzte
muga zeharkatzeko guneak.
Behobia erdibitzen duen
lerro berdea ezabatzen hasia da.

Ehun urteren buruan
alde bateko nahiz bertzeko behobiarrak ez dira
oroituko
iragan denboretan bazela lerro berde bat
Behobia erdibitzen zuena.

Ehun urteren buruan
iraganeko lerro berdeak
itsasoaren urdinaren gisa hartuko du.
Eta bertako mugalariak anfibioak izanen dira.

NORBERAREN APARTEKOTASUNAZ

«Ez dago zu bezalakorik»
dio kantariak
sukaldeko irrati zaharretik.

«Ez dago zu bezalakorik».

Egia da.
Ez dago zu bezalakorik, Zuriñe.
Ez zu bezalakorik, Ion.
Hi bezalako inor ere ez diat ezagutzen, Cesar.

«Ez dago zu bezalakorik».

Ni bezalakorik ere ez dago.
Zientzialariak karriketara atera dira
mezu nagusi bat ahotan:
«Berdin-berdinak diren bi zelulak ez dira mundu
osoan».

Sukaldeko irrati zaharretik iragazten zen
kantuak halaxe baitio:
«Ez dago zu bezalakorik,
erran zion xinaurri batek bertze bati».

MUGALDEKO DIALEKTOLOGOAREN AFERA

Attari

Aitak,
zirkunstantzia historiko-politiko-geografiko batzuen erruz,
erakutsi ez zidan euskara behar bezala ikasteko
euskal filologia egiteko erabakia hartu nuen.

Karrera bukatuta, aitak, lehengo zio berdinengatik,
erakutsi ez zidan euskalkian behar bezala solas egiteko
mugaldeko dialektologian doktoratzeko erabakia hartu nuen.

Azkenik, edo hobeki erran, hondarrean, erdietsi dut
desio nuena. Izan ere, orain aitarekin topatzen naizelarik
euskaraz egiten dugu, tarteka bada ere.

Elkar agurtzean erraten dit oharkabean: «Ondo izan».
Eta orduan nik,
zirkunstantzia historiko-politiko-geografiko batzuen erruz,
oroitarazten diot: «Ondo izan, ez, atta!,
hola ez baita erratten zure herrian,
zure herrian izan ongi erratten da».

Eta berak, ume ttiki batek ahantzi behar ez duen mandatua
ahantzi izanen balu bezala, arrazoia ematen dit buru-makur,
ni pozik edo kontent jarriz.

LIZUNA ETA ZITALA

Lizuna eta zitala naiz:
badakit gizonek asetzen ez dakiten hori elikatzen;
badakit gizonek elikatzen ez dakiten hori asetzen.

Ederki ezagutzen ditut emakumeen gogoak:
nireak bezalakoak baitira, ispiluaren bertze aldean.

Zuek, ordea, temati erraten duzue
lizuna eta zitala naizela.

Jaungoikoak ezpal berekoak egin gintuen arren:
zakil oro bezain inperfektu,
lili oro bezain eder.

Ni naiz edo zuen begirada?

LIBRE JAIO NAIZ BAINA

Libre jaio naiz, baina
gatibu sentitzen.

Ez naiz errudun jaio, baina
behin eta berriz sentitzen naiz errudun.

Ez naiz borrero jaio, baina
horrela egin naute eta horrela sentitzen naiz
nire berdinekin,
libre jaio baina errudun sentitzen direnekin.

(GAU) LANGILEEN BIDEXKA

Elkarren behaketan, astronomoak bagina bezala,
ematen ditugu gaueko ordu ilunak.

Mugalariak ez du iragana oroitu nahi izaten
Tui edo Berlingo harresiaren inguruan:
lepoak, mendi-lepo (ez) direlarik
bizkarrak mengel, zama ezin eramanik.

Bideak, errekak, zeruak urratzen diren
erreinu horretan bizi gara gu
pozaren pozez.

GERLAKO KANTUAK

Gu penaz higatzen, elgarren xahutzen
bat bertzea hiltzen, odola isurtzen
bertze anitz urrundik irriz asetzen.

«Haurrak ere erorka
xutik du ikasten» erran didak, Mattin.
Haatik, ezin atera gaitezke lubaki hilgarritik.
Ez dugu ikasi, nonbait.
Erortzen bai, ederki ikasi dugu erortzen:
lurraren kontrako kolpea hain bortitza izan ez dadin
zenduen gainean amiltzen gara amultsuki.

Mattin Irabola (1879-1935), Senpereko bertsolaria;
ez zekien ez idazten ez irakurtzen.

HURBILEKOAK

Hagitz hurbil dute, nahi baino hurbilago,
urrezko ezteiak ospatuko dituzten eguna.
Elkarrekin ezkondu aitzineko zurrunbiloaren
aztarnarik ez da sumatzen egun.
Ez, bederen, hiri erdialdeko parke bateko
eserlekuan
bakoitza alde batera begira dagoelarik, zer gerta
ere.

Beren aitzinean gazte bat dago bideo-jokoarekin.
Tabako paketea, coca-cola eta edozein unetan
bakea urratzen ahal duen sakelako telefonoa ditu
ondoan.
Hiri erdialdeko parkea diseinatu zuenak
berrehun urte geroago bi belaunaldi
buruz buru ezarri nahiko balitu bezala.

Presaka dabiltzan oinezkoak
ez dira deusetaz konturatzen:
senar-emazte zaharrak lotzen dituen
telekomunikazioaz,

mundutik urrun egoteko erdialdera jo duen
gaztearen asmoaz,
bertako eserlekuak egunero ikusi arren
bertako eserlekuetan ez-jartzeko denboraren
inposaketaz.

GURUTZAKETAK

«Ez dakit» erran eta
fikzioa sortzeko gauza naiz.
«Ez dakit» erratea beti da interesgarriago:
zalantzari zirritua utzi
—edo leiho oso bat zabalik—
galderak maitekiro bizi.

Ezin beti gai handietara jo,
ezin beti burutzeko ditugun iraultzen aldarria egin.
Politika ezdeusari berezko tokia kenduko genioke.
Azken batean,
gai ttikiak eta tonu apalak izaten dira
gure bizira itzultzen gaituztenak.

Beti itzultzen gara bizira,
ez dago bertze lurrik guretzat.

MUGARRI LUZEAK

ilargi zaharrean
moztu behar da beldurra

ITURRIAK

Aspalditik ez du urik edaten karriketako iturrietan.
Ez bertako kanilatik zuzenean bederen.
Gibelean gelditu zaio haurtzaroa, arrunt gibelean:
batek daki nolako ura edanen dugun!
Ilusioak eta ametsak aspaldian ordezkatu zituen
eguneroko errutinagatik.

Gaur lanetik etxera bidean
lipar batez begirada jaso du:
haurtxo bat jostetan iturri baten ondoan, paperezko
irudimenarekin nabigatzen, egarria oparo asetzen.
Istantean oroitu da, berari ere
plisti-plasta ibiltzea gustatzen zitzaiola
udako arratsalde sargoritsuetan
gurasoen etxearen ondoko iturrian
egarria iturriko kanilatik asetzen zuenean.
Orduan paperezko itsasontziak inprobisatzen zituen
plazako hamaika errekatan nabigatzeko.

Lipar batez oroitu da, haurtxo hori ikustean.
Gero, inoiz izan ez duen amets baten gisara,
etxe aldera abiatu da. Fite.

Gizon kamutsak ez dio zentzurik aurkitzen
etxe ondoko iturriari, herdoila baizik ez kanilari.
Iturri hori haurrentzako jostailu soila baita beretzat.
Denbora galduetako monumentua.

DENBORA-PASA

Haurrak ginelarik,
anai-arreba zaharragoak izatera jostatzen ginen,
bizitzeko genuen denborari
aitzina hartu nahirik.

Neska-mutil koskorretan
pubertaroaren atarian ginelarik,
adin-nagusitasuna aldarrikatzen genuen
behin eta berriz.

Geroago,
30 urte bete genituelarik,
hamar urte gehiago zituztenekin joaten ginen
20 urtekoen bestari muzin eginez.

50etatik aitzinera,
egunkarietatik hitz gurutzatuak irakurtzen
genituelarik,
erretiroan pentsatzen hasi ginen
geroak ezustean ez harrapatzeko.

Jubilatu ondoan, egindako ibilbide guzia
gibelka bizitzen hasi ginen,
aitzinetik genuen heriotzari
gibela hartu nahirik.

Eta orain, hogeita bederatzi urte ditugularik,
deblauki ohartu gara
denboraren poderioz ikasi beharreko hori ez dela ikasten
denborari aitzina hartuz.

Orain, denboraren poderioz jabetu gara
Benedettik arrazoia duela,
denborak ez duela Erromatik bakarrik ihes egiten
hegaldiaz gozatu beharra dugula, akitu bitartean.

ERRADAZU

Noiz arte izanen ditugu
ttikitako beldurrak?

Noiz arte izanen gara ttiki
gure heldutasunean?

Baldin eta badakizu,
erradazu noiz arte, otoi.

Erradazu, eta zin egiten dizut
isilpean izanen dudala.

Erradazu zure beldurrak
nireak ote diren.
Erradazu nire kezkak
zureak ote diren.
Zin egiten dizut
ez dudala zure sekretua agertuko.

ALTER EGO

Ez dizut begietara
begiratuko
triste eta goibel zauden bitartean.

Zuregatik aritu naiz bila eta eske
eske eta bila olerki zaharretan barrena,
alferrik.

Ez dut neronen akabera ikusi nahi zure mirailean.
Ez dut infernuan kiskali nahi zure gogoan.
Koldarra izateaz harro nago, behingoagatik.

Barkatuko didazu, laztana,
nire ahulezia, baina
errana dut:

Ez dizut begietara
begiratuko
triste eta goibel nagoen bitartean.

BARRENKOIARENA

Poeta solasen etorririk gabe gelditzen delarik,
zer erran edo zer idatzi ez dakielarik,
aztarrika hasten da bere barrenkietan...

Bere buruari goitika eragiteraino.

Aitzitik, batzuek muga hori zeharkatzen dute
sekula santan bertze aldera
ez itzultzeko.

BAZOAZ

Bazoaz
week-end delakoaz gozatzera
iraultza poetikoa egitea proposatu behar nizun
unean

Bazatoz
besarkada batek dena konponduko duelakoan
muxu inozo batek dena moldatuko duelakoan

Bazoaz
hiru egunen buruan
itzuliko zarelako promesarekin

Hemen utzitako hutsunetik edanen dut bitartean
isilunearekin konformatuko naiz
neronen buruarekin solasean ez itotzeko

Zuk sortutako hutsune bakoitzeko
poema bat egin izan banu...
zuk sortutako isilune bakoitzeko

Bazatoz
eta hiru egunen buruan
ez da iraultzaren aztarnarik ere izanen

Bazoaz
eta esnea ozpinetan edaten jarraituko dut
besarkadak hutsik gelditzen direnerako

Bazoaz
eta itzuliko zarelako esperantza
mehatxu egiten hasia zait

USTE MAITEAK

Guk ez dugu elkar maite, laztana.
Guk uste dugu elkar maite dugula.
Orain eta hemen elkarrekin bageunde,
elkarrenganako maitasunean urtuko ginateke
sutsuki. Ez gaude ordea,
ez orain eta ez hemen.

Guk hutsuneak maite ditugu, laztana.
Nahiz eta usu uste dugun
ez ditugula hutsuneak maite;
hutsuneak hutsune handiagoa ekartzen duelakoan.
Zer da haizea hutsune handi bat baizik?
Boladaka beroa, boladaka hotza.

Zerbait guziak ezerezaz osatzen ditugu,
gure hutsune maiteak bezala.
Guk uste dugu zuloak eta hutsuneak biribilak direla.
Baina, espazio geometrikotik at ere bada bertzelako
espazioa.
Edo hala pentsatzen dugu: ez dakigunaren zuloak

dakigunaren bezainbertzeko espazioa betetzen
duela.

Maitasunak ez du forma jakinik, ezagunik.
Barkatu, erran dezadan egia,
guk uste dugu maitasunak
ez duela forma jakinik.
Uste izateagatik ere, uste izaten dugu
maitasuna, justiziaren antzera, itsua dela.

Eta hementxe nago
itsu gaixo baten
makilakadak jotzen.

KOLDARRAK ETA AUSARTAK

Bizian hilik gaudelarik
ihes egiteko gogo bizia antzematen dugu.

Ausartenak bakarrik arriskatzen dira
errealitatearen mugarri luzeetatik ihes egitera.
Barrenean gelditzen direnek
daukaten pixarra jokoan paratu nahi ez dutelako.

Aitzakia andana baten gatibu.

Ihesari ematen diotenak, berriz,
ez dira ohartzen
ihesi ibiltzea preso izateko
bertze era bat baizik ez dela.

MAHAI GAINEAN

Barkatu:
gutunak ireki dizkizut berriz ere
zure baimenik gabe.
Gutunak eta erraiak.

Behin erran nizun
zure isilune bakoitzeko
poema bat egin izan banu...
zure hutsune bakoitzeko.

Eta orain diotsut:
poeta izatearena, legarrezko letrak isurtzearena,
ez dela zure errua;
jatorrizko bekatuarekin munduratu nintzen.

Barkatu:
zauri zaharrak gatz-ozpinetan
paratu dizkizut berriz ere
zure baimenik gabe.

Eta gero joan egin naiz.
Barkamen hau sukaldeko mahai gainean utzi gabe.

AMATASUN ANTZUA

Nigan habitatzen duten
Jane Austen, Virginia Woolf,
Gioconda Belli, Blanca Anta...

Erdiminez nahi nuke iratzarri
bi aldiz bi
bizirik egoteko.
Munduari bizitza deklaratu
odolaren etenak ez baitu bertze legerik onartzen.

Nigan habitatzen duten
ama guziak gainerako mamuekin azaleratu.
Bularretatik bizitza eman eta hartu.
bi aldiz bi
bizirik egon.
Etorkizuna konjuratu
ama izateko.

Ez dut neure ezintasunetik
inolako omenaldirik egin nahi,
ni bezain antzua bailitzateke.

Amaren altzoan
eztiro kulunkatuz
dastatzen ditugu gizonok sormenaren jelosiak.

Erdiminez nahi nuke iratzarri.

LO ZINEN BITARTEAN

Lo zinen bitartean
zure orain arteko bizia ikusi berri dut
nire gogoaren pantaila handian:
neskatxa nola emakumetzen zen.

Lo zinen bitartean
arras erne izan naiz.
Ez dut zure gorputza ukitu,
ez dut zure ilea ferekatu.
Horretarako badugu diskografia ergel oso bat,
zinema eta libururik salduenak badaezpadako
osagarri.

Lo zinen bitartean
ametsetan egin dut bidaia
ea atzematen zintudan.

Eta atzeman zaitudanean
zure gorputza ukitu,
zure ilea ferekatu dut.

Orduantxe ernatu naiz
zu arras erne zinen bitartean.

AMARRUA

Zeruaren ganga
zeinaren azpian mugitzen garen:
mugimendu bakoitzak mugatzen gaitu,
muga bakoitzak mugitzen gaitu.

Ardoa edan edo ez,
greziarren jakituria izan edo ez,
ilargira joan edo ez,
lau paretatzar ditu gure mundu honek.

Bere horretan jarraitzen du
hodeiertzaren amarru zikinak:
hurbildu uste dugu, arrimatu uste dugu.
Bertzerik ez.

Zeruaren ganga
zeinaren azpian mugitzen garen:
norberaren askatasuna
ur hormatuan urtzen hasia den
icebergaren tontorra baizik ez da.

DEMAGUN

Demagun
etorkizunean goia joa dugula
eta zorionaren zorionez bizi garela.

Demagun
oroi-mina eta tristezia
iraganean sendatutako gaitzak direla.

Orduan,
zer eginen genuke
gure orainarekin?

LASTERKA

Lasterka egin nahi dut lasterka
nire urtebetetzean egunak
eta urteak gibelean utzi
haize hotzak aurpegian kolpa nazala
bizirik nagoela oroitarazteko

Lasterka egin nahi dut lasterka
birikak oxigenoz ongi bete
ongi hustu eta berriz ere bete
sakelak ez diezadala bertze behin
bihotz gorria jendaurrean ebatsi

Ausarta izanen naiz ausarta
amodioaren enbatak berdindu
lotzen gaituen kontraerrana txikitu arte
orduan librea izanen naiz
nahi dudan erroitzean amiltzeko

Ororen gainetik
lasterka egin nahi dut lasterka
kartzelan sar nazatela

nire negar-malkoei arrazoia emanez
Erdi Aroko urkamenditik
inork ere ez nazala salba otoi!

Lasterka egin nahi dut lasterka
aitzinetik bildutako indarrak akitu arte
egunen batean gelditu gero
nekeak jota zentzudunen artean
patxadaz bizitzeko

AZKEN BAGOIAN

Azken bagoian noalarik
ohartzen naiz zein hurbil gauden
elkarrengandik urruntzen garenean
distantzia handiek areago elkartzen gaituztela
trenez egin beharreko kilometroak
hurbilago egoteko zentimetroak bertzerik ez direla
eta batez ere
gibelean gelditzen diren geltokiak
ez direla gelditzeko tokiak

EGO ALTER

Zuk gaztigatu zenidan,
«Ez ezazu maitasun poemarik idatz;
urrun zaitez arrunt diren forma horietatik:
zailenak dira».

Eta nik, halarik ere, neurean jarraitu dut:
neure baitan bildurik.

Bakardadea nahitaezkoa dugula bizian
eta heriotza gure zain,
egonarriz!

Egia da
gero eta nekezago erraten dizudala
«Maite zaitut».
Isiltasunak bizi gaituela diozu.

Eta nik, halarik ere, neurean jarraitu dut:
zeure baitan bildurik.

BEHARBADA, SEGUR ASKI

Beharbada
oraindik ez dituzu zure seme-alabak ezagutzen,
ez eta hamabi urteren buruan
bizia salbatuko dizun laguna ere.
Beharbada
ez duzu seme-alabarik izanen.
Beharbada
atzo pozarren ikusi zenuen umetxoak
labankadaz josiko du bere bikotea 2027an.

Segur aski
heldu den astean berean ezagutuko duzu
egunen batean sos batzuengatik salduko zaituen
adiskidea,
hagitz une berezian sostengua emanen dizuna,
arras mozkorturik gidatzeagatik
lankide baten bortz urteko mutikoa harrapatuko
duena.
Segur aski
atzo mutur beltza eskaini zizun emakume xaloari

noizbait ebatsitako bizipoza itzuliko diote hiru urteren buruan.

Non ote dautza oraindik ezagutu gabeko momentuak?

KARTOGRAFOA NAUFRAGIOAN

botilak, mapak eta botilak

Eta ez dira mugak ixten,
ez dira txertoak asmatzen,
edo asmatuta ere ez dira banatzen.
Ez dira ostatuak zarratzen
mozkorrak gehiago ezin edan duenean.

Pandemia ikaragarria zabaltzen zait
mezurik ez duten ametsezko kartetan.

Ur gaziaren ispiluan
koarentena iduri dut.

Nola marraztu ikusten ez ditudan uharteak?
Nola trazatu nire baitan aurkitzen ez ditudan
marrak?

Bakarti doaz neure paterak
gogo gabe, idorretik.

POESIAREN MUGAK

Ene negarra ene muga da.
Enegarren muga madarikatua.
Ezin bainaiz bertsotik haratago joan.
Ezin baituzu jarioa geldiarazi.

Zadorrak gainezka eginik
bete-betean harrapatu gaitu.
Uholdearen aztarnak baizik ez daude agerian.
Aurpegiak errekaren ubidea marraztu du:
ildo berriak irekiz, zauri zaharrak ezin itxiz.

Gerra-korrespontsalak bezala,
zuregarren poema honek ere ez luke existitu behar.

Etengabe itotzen naiz igerian.
Zuk jakin dezazun
hiztegiaren ur uherretako itoaldirik latzenetan ere
zure ahoa eta biriken bitartez
hartzen ahal dudala hatsa.

MUGALDEKOA

Lehengo mugaren marra gaindiezina zen tokian, orain aduana zaharra bakarrik gelditu da: hutsik barrenetik, pintadaz beteta kanpotik. Zenbat lagunek ez ote zuten hil aitzineko paradisua ikusi izanen ehun metro eskasetara? Zenbat istorio xelebre sorrarazi ote du kartografoen mapetan ere ageri ez den idurizko marrak? Istorio harrigarriak, latzak. Egiazkoak eta gezurrezkoak. Denak, kontatzeko eta entzuteko, balekoak baitira.

Nik aditua dut Pirinioetako mutur kantauriarraren inguruan badela adineko artzain bat Espainiako Gerra Zibilaren eta Bigarren Mundu Gerraren ondoko denboretan harrapatuta gelditu dena. Bai, harrapatuta. Bertzenaz, nola ulertzen ahal da ardiak eta bildotsak arratseko ordurik ilunenetan bakarrik mugaz bertze aldera pasatzea. Are gehiago, mendi mazeletan goiti ibilki delarik, bere adinerako sasoi betean baitago, itzaletik itzalera mugitzen da. Itzaletik itzalera gauaz, inork ere ikus ez dezan.

Aitona zahar honek Braulio du izena. Arrunt buruargia da. Halaxe dut aditua, bederen. Kontua da Brauliok karabineroak ikusten dituela, Bidasoaren bi alderdien ertzean guardia egiten. Karabineroek edo

eltzetzuek (mendian lanean ari diren bitartean, orduak eta egunak ere pasatu behar dituztenez, jana eltzetan eramaten baitute), lehengo denbora haietan bezala soborno ttikiak onartzen dituzte. Egia erran, ttikiak eta handiak, egin nahi den lege-haustearen arabera. Eta Braulio artzainaren delitua ez da makala: mugaren inguruan harat-honatean ibiltzea oztopo eta azalpenik eman beharrik gabe.

Dena behar du zoritxarreko artzain honek aitzinera egiteko, aspalditik bakarrik bizi baita bere sortetxean, Borda Berri baserrian. Oraindik ere istorio lazgarriak kontatzen ditu herrira jausten delarik, batez ere muturra ardotan berotzen ibili baldin bada. Barrena hustu beharra du. Gaurkoan bere emaztearena kontatzen ari da herriko ostatuan. Denek ezagun dute pasadizoa, baina Braulio kontalari trebea da. Eta bere herrikideek ilunabar honetan bertze deus hoberik egiteko ez dutenez...

Ongi gogoan dut egun hura. Bertze aldera joana nintzen pakete baten bila aitzineko arratsean. Horrela ordurik ilunenetan —kasik goizaldera arte— alderdi honetan egonen nintzen berriz. Nire kontaktua Biriatuko Etxeberri izeneko bat zen. Geroztik ez dut sekula ikusi. Hura ere garbituko zuten noski, bertze

anitzekin egin zuten bezalaxe. Gaueko lanean aritzen zirenak Bidasoan barrena nahiz arroken arteko ataketatik pasatzen ziren. Ni arrats hartan, ordea, muga gurutzatzeko ia aduana zaharreraino joan nintzen. Etxe ofizial baten ondotik eginez gero, zuk haiek kontrolatzen baitituzu, eta ez alderantziz. Arriskutsuago iduri luke, baina finean, aiseago egiten da. Bereziki, pakete baliotsuagoak eta handiagoak garraiatu behar zirenean.

Goizaldean Bera eta Lesaka artean nintzen. Hantxe banuen lagun bat fabore ttikiak egiten zizkidana. Bera maiz joaten zen Goizuetara, eta lanerako tresnak eta belarra eramaten zituenez, gurdia erabiltzen zuen. Nik paketea belarrarekin ongi estaltzen nuen, eta listo. Gero komisio ttiki bat harentzat, eta arrisku handirik gabe paketea Goizuetan. Ondotik, handik Tolosara eramatea erraza izaten zen, hagitzez kontrol gutiago zegoelako.

Pakete hura kobrea zen, bertze hainbatetan bezala. Niri ez zidaten inoiz erraten zertarako edo norentzat zen, baina beti susmatu izan dut Gobernuarentzat zela. Gobernuak horrelako gaiak behar zituelaeta, gauza batzuk errazkiago pasatzen uzten zirela. Nabari zen, bai. Bertzela, nondik ailegatzen zen Iber-

duerok behar izaten zuen kobrea, denbora haietan ez baitzen deus ere hemen. Eta jakiekin antzeko parezido. Nondik nora moztuko zuen hori Gobernuak, herriak ahora eramateko jaki izpirik ez bazuen. Gobernuko jendeak beti jakin izan du kontrabandoa egiten zela, baina anitzetan bertze alde batera begiratzen zuen, hala jokatzea komeni zitzaiolako.

Egia latza erraten duenaren antzera, zintzurra busti du trago luze batez ostatuko isiltasun gordinean. Horra, mugako jendakien izaera berezia, behin gaueko lanean aritu denak horretan segitu nahi baitu. Horretan sosak ez ezik, prestigioa ere irabazten baita herrikideen aitzinean. Batetik, adrenalinaren gurpila dago, arrisku bizian egoteak ematen duen bertigoaren sentsazio gustagarri hori; bertzetik, egin diren eta batez ere ez diren balentriak bizilagunei kontatzeko bide ezin hobea da.

Brauliok badaki denen arretaz jabetu dela. Eta aitonak ez die iruzurrik eginen. Kontrabandoa gauza bat da, eta iruzurra bertze bat. Mugalariak edo kontrabandistak ez dira inoiz ere mafiosoak izan. Kontrabandoa lanbidea zen, da eta izanen da luzaz ere. Hemen eta bazter guzietan. Nahiz eta portugesen afera...

Mundu honetan bi pertsona klase deitoratzen ditut: bere jatorriari, bere izateari uko egiten diona, eta bere burua handietsi egiten duena. Eta Tolosan garai hartan bietatik zegoen. Alde batetik, erdara traketsean ezin moldatuz ibiltzen ziren baserritar peto-petoak beren alabaren bat funtzionario batekin ezkontzeko esperantzan-edo; eta bertze aldetik, kanpotik etorritako funtzionario harroxkoak kapital handi batera destinatuak izateko merituak metatu nahi zituztenak. Gero, Tolosa zegoen, eta tolosar jatorrak. Hauetako bat lagun zintzoa nuen, eta egoerak hala eskatzen bazuen, bere etxean ostatu hartzen uzten zidan. Orduan ere horrelaxe suertatu zitzaidan, eta Pellori —hala baitzuen izena— faborez eskatu nion gaua igarotzeko txoko bat. Biharamunean, goizean goiz jarri nintzen etxerako bidean. Bueltako bidea, zamarik gabe, beti lasterrago egiten zen. Aitzitik, hortik aitzinera hasi zen nire egiazko zama, oraindik gainean eramaki dudana. Ez naiz bizkar-lanaz ari, ez. Zeren eta Borda Berrira iritsi nintzelarik, Magdalena ez zegoen. Eta gaur den egunean ere ez dago. Hasieran ez nion inportantziarik eman, nahiz eta Magdalenak ordu gehientsuenak etxean ematen zituen. Denbora zailak ziren, gu arrunt gazteak artean eta... Seme-alaba-

rik ere ez genuen! Nik anitzetan gauak eta egunak egiten nituen etxetik kanpora, kontrabandoagatik. Neronen lanbidea zen, sos pollitak ematen zizkidana. Horiekin Borda Berri moldatu eta txukunduko genuen. Sos horiekin familia bat izanen genuen. Edo hori uste nuen nik. Inuxente halakoa!

Bertze tragoxka bat hartu du, erran beharrekoa hobeki antolatu nahiko balu bezala. Braulio kontalari trebea bada, hain zuzen ere, kontatzen duena bizi eta biziarazten duelako da. Eta momentu horretan bere senetik ateratzen hasia da. Edalontzia berriz bete diote, pixka bat edaten duen bitartean, zertxobait baretzeko asmoz. Mahaien inguruan bildu diren lagunen aurpegietan tentsioa islatzen da, bertzelako itxura egiten saiatzen badira ere. Artzain zaharrak lehentxeago utzitako tonu ozen berari eutsi dio segituan.

Egunak joan egunak etorri, eta Magdalenaren arrastorik ere ez. Herriko inork ere ez zekien deus. Nik ez nuen piperrik ere konprenitzen. Gogoa hartan paratuta egon nintzen luzaroan, pentsatzen zer gertatu ote zitzaion. Kontrabandoa ere utzi behar izan nuen, eta etxean sartuta eman nuen gau eta egun. Arratsetan amesgaizto ikaragarriak izaten nituen. Behin eta berriz irudikatzen nuen arrotz batek gure-

ra etorrita ene lorea bahitzen zuela, ni etxean ez nengoela baliatuz. Errudun sentitzen nintzen arruntean, egon beharreko tokian egon ez nintzelako. Egon beharreko momentuan egon ez nintzelako. Ez dakit hori inoiz ere barkatuko diodan nire buruari. Eta makurragoa dena, ez dakit Magdalenak inoiz ere barkatuko didan.

Bekoskoa ilundu zaio deblauki. Denen agerian gelditu da aitonaren begirada tristea. Hasitako istorioa akitzeko indarrik izanen ote duen ari da bat baino gehiago bere baitan pentsatzen. Halarik ere, kontaketari ekin dio, lehen bezain irmoki ez izan arren.

Denbora hartan zurrumurru bat hedatu zen inguruotako herrietan barrena. Egundaino gertatu gabeko gertaera: eltzetzu batek, eltzetzu madarikatu eta alu batek ihesari emana omen zion. Eta honetaz ere inork ez zekien deus. Harrigarria. Mugalariak. Handik honat, edo hemendik harat ihes egindako pertsonak, bai. Baina karabinero batek... Karabineroek ez dute ihes egiten. Karabineroak mugaren alderdi jakin batean daude eta hori zaindu behar dute nahitaez. Haiek dira mugazainak, haiek dira hau guzia kontrolatzen dutenak. Baina, nork kontrolatzen ditu karabineroak? Bada, ordura arte behinik behin, inork ere

ez. Nork pentsatuko zuen eltzetzu zikin batek hanka eginen zuela?

Zurrumurru haren arabera, eltzetzuak Frantziatik eskutitz bat jasoa zuen, eta berak ezagutzen ez zuen senitarte aberats bat hil berria omen zen han; eta iduriz, eltzetzu alua zen herentzia kobratzeko zegoen bakarra. Inork ere ez zuen pentsatzen eltzetzu gizajo bati halako dirutza suertatuko zitzaionik bat-batean. Inork ere ez zuen pentsatzen eltzetzu zikin bat eta herriko bat ba...

Handik gutira, guardia egin behar zuen gau batean ihes egin zuen Frantziara. Ordutik ez da bere berririk izan. Ordutik Magdalenaren arrastorik ere ez.

Berandu da. Tragoak akitzeko tenorea. Bakoitza bere etxera itzultzeko tenorea, Braulio izan ezik. *Badut lana* erranez alde egin du ostatutik. Ideiek eta burutazioek gogoa kolpatzen diote: *kontrabandoa bai, baina iruzurrik ez; bi pertsona mota deitoratzen ditut nik*: *bere jatorriari, bere izateari uko egiten diona, eta bere burua handietsi egiten duena*.

Begirada galdua du, bere buruak eskaintzen dizkion idurien infinituan *Nork pentsatuko zuen eltzetzu zikin batek hanka eginen zuela? Inork ere ez zuen pentsatzen eltzetzu gizajo bati halako dirutza suerta-*

tuko zitzaionik bat-batean. Inork ere ez zuen pentsatzen eltzetzu zikin bat eta herriko bat ba... Berriz esaldia ezin bukatuz gelditu da. Pentsatu hutsak ere mina ematen baitio, buruan mila jostorratz batean sartuko balizkiote bezala.

Noraeza begitartean, baina pauso sendoa ibilian. Jakin baitaki, hagitz ongi gainera, zer egin behar duen. Izan ere, artzain zaharrak gaueroko erituala errepikatuko du: Endarlatsa ingurura hurbildu, han bilduak dituen ardiak eta bildotsak goiti eraman eta, inork ikus ez dezan, gauaz itzaletik itzalera mugitu. Brauliorentzat idurizko kontrabandoan aritzea da bere mendekua, barrenak eskatzen dion mendekua, barkamenik ezean. Hil arteko zigor horrekin bizi beharko du. Bere erranetan *bizi honetan egindako akatsen eta hanka-sartzeen zama larria izaten baita bizkarreratzen zailena*. Eta kontu horretan mugalaria izateak ez du sobera laguntzen, nonbait.

Lehengo mugaren marra gaindiezina zen tokian, orain aduana zaharra bakarrik gelditu da: hutsik barrenetik, pintadaz beteta kanpotik. Egia erran behar baldin badizuet, lehengo mugaren marra gaindiezina zen tokian, orain ez dago deus ere. Oroimen kolektiboa, akaso. Eta ziurrenik, ezta hori ere. Hain dago

hurbil, hain da exotikoa kartografoen mapetan ere ageri ez den idurizko marra, ezen istorio xelebre mordoxka bat sorrarazi baitu. Hemengo bazterrak behin baino gehiagotan nahasi dituzten istorio harrigarriak. Istorio lazgarriak. Egiazkoak eta gezurrezkoak. Denak, kontatzeko eta entzuteko, balekoak baitira.